

Noren zergekin?

BEKAIZKERIA sendagaitzek gizarte maila guztiak jotzen dituzte, Gaitz horrek jota gauda alde bateko ta besteko euskaldunok. Tai gabe, ixildu gabe abertzale otsezkoa gizon ezagun batzuei entzuten dizkiet Iparraldeari buruzko 'ez-egiak'. Haserre moduan jautigi albiste okerrak dira, alegia Iparraldeko euskaldunon ekintza asko eta... larriegi, Hegoaldearen bizkar «gure dirubarekin, gure zergekin» diotenez eginak direla. Hori diotelarik abertzale horiek geroago ta gehiago iparraldeko ei frantses etiketa ipintzen diete, berak espaniol balirean berba egiten dutelarik.

Ez abertzaleok ez! Diru ematean Iparraldekoa naizen ezkerro, Iparraldeon —ikastolarekin izan ezik— ezkara zuen zergen bizkar ta eskale bizi. Beste diru konturik erakutsi arte, ez! Hegoaldeko dirurik jasotzen badugu lan baten, ekintza baten truke eta sari izaten da: ikusgarri, kazetari, irratilari, telebistari lan baten gatik ete euskal liburuak idazten ditugulako. Ezin jasana bazaizue Jaunak esan, edozeini ordainduko duzuela bere lana —iparraldeko bati izan ezik— ta hunanindiko lagunak ezkarela onartuak izango beka ta sarietan, esamenak buka ditezten.

Badirudi Zaragozako neskatiaren eta Napoleonen herrekin hegoaldean eta Carlos Quintoren inbasioaren oroitzapenekin Iparraldean XXI. mendera igaro behar dugula. Benetan diot: independentzia eskatzen dugunean gogoaren bere-jabetasunik eta nortasunik eztugula asko erakusten: futbollean Españak galtzen duenean, hegoaldean eta Frantziak Rugby-an Iparraldean abertzale kiroltzaleok triste zaudete. Zein da zuen abe-

rria?

Itzul gaitezen diru-kontuetara ea Frantziarekin bazenukete egitekoa, gu baino hobeki egin zenezaketeen. Geure euskal kultura ekintzetan % 70 iparraldeko euskaltzale ta abertzaleok geure poltsikutik zuzenean ateratzen dugu, esan nahi baitu horrek, askok bigarren zerga ordaintzen dugula: gure ikastolak, iratiak (3), aldizkariak zutik edukitze-

GEURE EUSKAL KULTURA EKINTZETAN % 70 IPARRALDEKO EUSKALTZALE TA ABERTZALEOK GEURE POLTSIKUTIK ZUZENEAN ATERATZEN DUGU.

Ikastolak zeharka kirol partidu edota Herri-Urrats jaiaren bidez, hegoaldeko dirutik jasotzen dugu, beste bideak debekatuak direlako (ezkara afrikatarak geu); gainera ikastoletan hegoaldeko erakasleak eta ikasleak izan dira beti, apartheidik gabe. Frantziak hegoaldeak baino zertxobait gehiago eman du azken urteetan, baina denetara % 30ra iristen gara, ondarra geuk eman behar. Ekonomia, zelan uste duzue sortu zela

Herrikoa, Euskal Herrian lan postuak egiteko bankua? Geure patrika hutsetik abiatu genuen, ez, zuen zergekin, ez frantses zergekin ere, geroztik Aurrezki Kutxek eta azkenik bi frantses bankuen akzioak hartu badituzte ere (langile berriei eztegiu galdetu hegoaldekoak zirenez ala ez, horietarik dexente baita, baktibat kooperatibetan) Igaz Herrikoak 3 milioi t'ardi (60 milioi pta) akzio deia egin zuenean Iparraldekoak 80 milioi eman genituen.

Geure gobernuak ez lurraldetik eztugun ezkerro ta frantses hipopotamoaren isatsean euli bat garelarik, gure sakeletatik diru hori ezpazen jalgi etzen 1970ean ikastolarik izango ez eta 1980tik goiti Herrikoa bankua, ez eta euskal iratiak.

Lamentatzen baldin baduzue Iparraldekoek irabazi pesetatxoak, zelan ta zergaitik alferretan Afrika ta Ameriketako Danaide dupelera, ondogabeko putzura, hamar bider diru galdu botatzen duzue, 'pesadumbre' gabe. Egia da ikusten eztenarekin eztela hasarretzen baina gure muturrak ikustez kezkatzen bazarete esan 'lauak bat' egin nahi duzuela 'espanoltartean'. Orduan zertarako gabiltza independentzia aldarrikatzen, debeka. iparraldeko ei Pais Vascon sartzea —turismoan izan ezik— eta lasaiki eman zuen diruak Afrikak ta Ameriketako militar ta funtzionarioen hazi egiteko. Bai uste baino sakonkiago edan dugu erdal pozoinetik euskaldunok eta eztugu independentziarik merezi abertzaleok frantses eta espanol moduan sentitzen ta pentsatzen jarraitzen duguno.

TXOMIN PEILLEN

IDAZLEA

Hegoaldetarrok ez omen gara ipar kulturari oso emanak

IPARRALDERA joaten naizene-tan Herria deritzen hango astekari bakuna erosi ohi dut beti, bertako arazo eta berriei jakitun egotearren.

'Pilaricaren' bestan Urruñan datzan parke-lorategi paregabea ikustera joan nintzen eta bidenabar Donibane-Lohizunen erosi nuen esandako idazki informatzailea; neure hiri-botxora bihurtu eta egun batzuren ostean, irakurtzeari ekin nion eta Uztaritzen helbidea duen Euskal Kultur Erakundeari buruzko artikulu bat topatu eta gogoz hasi nintzen aztertzen; laster hurrengo galdera agertu zitzaidan: «Mugaz haraindikoek ezagutzen hasia dutea Iparralde?». Interesgarritzat jo eta berehala harritu eta betilun xamar geratu ere nintzen, erantzunaz zera nekielarik: «Hegoaldekoak guti jiten dira honera... ekintzetan ez dira ainitz agertzen... globalki hegoaldeko jende guti datorkigu Pastoraletara salbu... Guk amesten duguna da gehiago partaide ager daitezen hemengo ekintzetan. Jiten dira gerota gehiago Carrefour-era... bakantza etxe pakantetara... behar lukete ere hemengo bizian parte hartu, kultur ekintzetan zuzenean sartuz».

Santa Graziñiko ur gardenak bezain argiro zaizkigu mintzatzen ingurumaririk gabeko hitzok. Ba zekiagu zer ikas, diotsot neure buruari: guttiagotan Miarritzeko hondartzetara, Iratiko txaletetara edo Kakuetakako 'gorges-era' eta gehiagotan bertako ospakizun kulturaletara. Hortxe ditugu urteroko batzu: Euskal Idazleen Biltzarra Saran Bazkoaren astelehenean, Lapurtarren Biltzarra Uztaritzen irailean, Xalbadorren omenaldia Urepele azaroaren hastapenetan... eta maiz noizbehinkako gorazarre, kultur egun edo asteak... Gogora ditzagun aurtengo E. Larreren omenaldia Irisarrin urtarilean, irailean P. Lartabalen Azkainen eta Oihenarterena Maulen eta Donapaleun, hilean eta Irisarrin ere berriro Ondarearen Eguna eta abar. Eta igaz Elizanbururen urtea ospatu zuten haren sorterrian... Ni urtero joan izan naiz Axular datzaneko hiriska honetako azoka literaria, eta behin bederen egon Baigorri gaineko bertulari artzainarenean —hau hurbil dugu orain eta berriro bertarantz abiatzeko asmotan nago—, hala nola aipaturiko astekariko zuzendariarenean ere.

Penintsulako euskaltzale guztiei, ni neu barne naizelarik, nahi nieke eskatu Pirinioak

sarritxoago zeharkatzen saia daitezen gure kulturako hango ekintzetan partaideak izan guran. Hola eginez gero, ez dukegu irakurri beharrik beste arrenkura mingaririk Herrian. Eta, noski, barkamena dautzuet galdatzen iparraldetarrei gure nagikeriagatik. Zuzendu behar dugu geure jarrera: egunkari beronetan han ospatuko diren ekintzetako iragarki eta informazioak aurkitu ahal dituzkegu, orain arte izan den bezalaxe, ene ustez.

Eta bestalde zera ere esango nuke nik: Shakespeare-ren hizkuntza gailendu egin deneko uneon ez letorkiguke txarto V. Hugorena ere ikastea pixka bat, han bertako erdaldunen batekin mintzatu behar badugu, oro gatzelania hutsez esan ez diezaiozun; euskalki guztiak ondo ezagutzeaz gainera, ongi eta egoki deritzot oraingo beste erdara, hots, guretzat 'La Seine et la Loire-ko' ibarretatik datorrena ('oraingo' diot, zeren aspaldian gaskoiera, Gaskoniako, Baskonia zaharreko 'Langue d'oc' izan baikenuen) nolazpait menperatzeari.

LUIS ALBERTO ANTON GORBEA

IRAKASLEA



GRAZI ETXEBERE
EMAKO kidea
ARGIA

«Ziur naiz etsaiak

obligatuko gaituela euskaldunok elkartzera»



DELVIN W. JUNKER
Estatu Batuetako
kontsula Bilbon
EL MUNDO

«Euskal Herrian fin-

katutako estatubatuarrek boto gehiago eman dituzte hauteskunde hauetan duela lau urtekoetan baino»



SANTIAGO MARTIN BARAJAS
CODAko
presidenteordea
EGIN

«Itoitz eraikitzea

burugabekeria litzateke»



MIGUEL SANCHEZ OSTIZ
Iruñear idazlea
EL DIARIO VASCO

«Errebelio modu bat

bezala ikusten dut idazketa»

ZAKILIXUT

© Olariagak

